GORDAILUTZE AKORDIOA

Alde batetik, **JOXEAN FERNÁNDEZ GUTIERREZ jauna** bildu da, **Fundación Filmoteca VASCA-EUSKADIKO Filmategia Fundazio**aren zuzendari den aldetik (aurrerantzean, **FILMATEGIA**).

Bestetik,

Errenteriako Udalaren izenean, Aizpea Otaegi Mitxelena andrea

Pasaiako Udalaren izenean, Izaskun Gómez Cermeño andrea.

Hernaniko Udalaren izenean, Xabier Lertxundi Asteasuinzarra jauna.

Andoaingo Udalaren izenean, Maider Lainez Lazcoz andrea.

aurrerantzean, **GORDAILUGILEAK**,

Bi alderdiek, ados jarrita, GORDAILUTZE AKORDIO bat sinatu dute, honako hau dioena:

1.- GORDAILUGILEEK baimena ematen dute, Fundación FILMOTECA VASCA – EUSKADIKO FILMATEGIA Fundazioaren artxiboetan gordetzeko eta kontserbatzeko Josefina Rubio Tió zenaren testamentu-albazeen esku dauden Antonio Eceiza Sansinenea zinemagilearen material, dokumentu zinematografiko eta bibliografia guztiak.

ACUERDO DE DEPÓSITO

Reunidos de una parte **D. JOXEAN FERNÁNDEZ GUTIERREZ**, en su calidad de Director de la **Fundación FILMOTECA VASCA-EUSKADIKO FILMATEGIA Fundazioa**, en adelante la **FILMOTECA**,

De otra parte,

Por el Ayuntamiento de Errenteria, Doña Aizpea Otaegi Mitxelena

Por el Ayuntamiento de Pasaia, Doña Izaskun Gómez Cermeño.

Por el Ayuntamiento de Hernani, D. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra.

Por el Ayuntamiento de Andoain, Doña Maider Lainez Lazcoz.

en adelante los **DEPOSITANTES**,

Ambas partes de común acuerdo proceden a suscribir un ACUERDO DE DEPÓSITO del siguiente tenor:

1.- Los DEPOSITANTES autorizan el depósito en los archivos de la Fundación FILMOTECA VASCA - EUSKADIKO FILMATEGIA Fundazioa, para su custodia y conservación, de todos los materiales, documentos cinematográficos y bibliografías del cineasta Don Antonio Eceiza Sansinenea que se hallan en poder de los albaceas testamentarios de la difunta Doña Josefina Rubio Tió.

Hauek izango dira baldintzak:

- Irudi eta material horien jabetza GORDAILUGILEENA da, eta FILMATEGIAk gordailututako irudi zinematografikoen eta materialen kopia digitala emango die.

- FILMOTEKAk, gordailuan utzitako materiala jasotakoan, sailkatu eta katalogatuko du, inbentarioa osatzeko; ondoren gordailuaren ziurtagiria egingo du.

- Materialaren edukia askotarikoa denez, FILMOTEKAk, inbentarioa egin ondoren, GORDAILUGILEEI aholku emango die zein materialen jabetza intelektuala erregistratzea komeni den.

- Irudiak eta materialak libreki ikuskatu ahal izango dira FILMOTEKAren instalazioan. Horretarako, GORDAILUGILEek pertsona bat izendatuko dute gordailuan utzitako edozein material kanpoan erabiltzeko eskaera egiten duten hirugarrenekin solaskide gisa jarduteko. Hirugarrenek irudiak eta materialen kopiak eskuratzeko beharko dute GORDAILUGILEek izendatutako solaskidearen idatzizko baimena (mezu elektronikoa, etab.).

- FILMOTEKAk gordailuan utzitako irudiren bat erabili ahal izango du, soilik, bere lanaren promozioa egiteko erakundean bertan nahiz kanpoan.

- Gordailua ondoriorik gabe geratuko da GORDAILUGILEEN alde bakarreko

El depósito se efectuará en las siguientes condiciones:

- La propiedad de dichas imágenes y material pertenece a los DEPOSITANTES, entregando la FILMOTECA a los mismos copia digital de las imágenes cinematográficas y materiales depositados.

- La FILMOTECA una vez recibido el material depositado procederá a clasificar y catalogar el mismo formando un inventario completo, tras lo cual se realizará un certificado de depósito.

- Dado el variado contenido del material, la FILMOTECA, tras realizar el inventario, asesorará a los DEPOSITANTES respecto a la conveniencia de registrar la propiedad intelectual del material que así se considere oportuno.

- Las imágenes y materiales podrán ser visionados libremente en las instalaciones de la FILMOTECA. A estos efectos los DEPOSITANTES designarán una persona en calidad de interlocutora para el caso de que se solicite por terceros la utilización externa de cualquiera de los materiales depositados. La obtención de imágenes y copias de los materiales por terceros deberá contar con autorización expresa y por escrito de la persona interlocutora designada por los DEPOSITANTES (e-mail, etc).

- La FILMOTECA podrá utilizar alguna de las imágenes depositadas, exclusivamente para fines de promoción pública o interna de su labor.

- El depósito quedará sin efecto por la voluntad unilateral de los DEPOSITANTES, tanto por

borondateagatik, bai FILMATEGIAK gordailuaren baldintzak ez betetzeagatik bai interes publikoko beste edozein arrazoirengatik. FILMATEGIAK gordailututako materiala GORDAILUGILEEN esku jarri beharko du, horretarako bidalitako errekerimendua jaso eta gehienez ere hilabeteko epean.

incumplimiento por la FILMOTECA de las condiciones del depósito como por cualquier otra razón de interés público, debiendo la FILMOTECA poner a disposición de los DEPOSITANTES el material depositado en el plazo máximo de un mes desde el requerimiento remitido al efecto.

Eta komeni den lekuan jasota gera dadin, akordio hau sinatzen dute parte-hartzaileek, sinadura elektroniko bidez, erreferentziako datan.

Y para que conste donde convenga, firman el presente acuerdo, los intervinientes, mediante firma electrónica, en la fecha de referencia.

Errenterian, 2020ko ekainaren 12an. / En Errenteria, a 12 de junio de 2020.

Errenteriako Udala

44137736T
AIZPEA OTAEGI
(R: P2007200E)
2020.06.18
08:48:13 +02'00'

Errenteria
AIZPEA OTAEGI MITXELENA
44137736T

Izpta./Fdo.: Aizpea Otaegi Mitxelena

Pasaiako Udala

Signature Not Verified
Digitally signed by 15980525X GOMEZ CERMEÑO (R: P2006900A)
Date: 2020.06.17 11:23:35 CEST

Izpta./Fdo.: Izaskun Gómez Cermeño

Hernaniko Udala

Izpta./Fdo.: Xabier Lertxundi Asteasuinzarra

Andoaingo Udala

Izpta./Fdo.: Maider Lainez Lazcoz